



## Amezketako saihesbidea dagoeneko erabilgarri

**IREKIERA** ▶ Agintariak burutu zuten atzo 800 metroko luzera duen errepidearen inaugurazioa

**HELBURUA** ▶ Herri barrura ez sartzearekin «lasaitasuna eta segurtasuna» bermatu nahi dute ▶ 6



Joxe Juan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahalduen Nagusia eta Julian Sagastume Amezketako alkatea, atzo, zinta moztzen. N. URBIZU

**IBARRA** ▶

### Elkartasun Egunari babesa eman diote

Merkatari, kirolari, musikari eta presoen senideen deia ▶ 6

**TOLOSA** ▶



E. EZEIZA

### 'Bonberenea Suffle' DVDa kaleratu dute

Bertan aritutakoen zuzeneko 33 kantu bildu dituzte ▶ 3

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

## «Azken teknologiadun autoak dira eskaera gehien dutenak»

Motorraren inguruko azken tendentziak aztertu ditu HITZAK ▶ 4-5



**Eguzkilore**  
loradenda

Santu guztien egunerako eskatu zure lore-zentroa

Euskalerrria kalea, 26-bis  
20400 Ibarra  
Tel.: 943 670 296

**BIHAR Zinema etxean 2**



8 DVD euskaraz

+ 4,50 €

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

## TOLOSA ▶

Olarrain  
auzoko jaiak  
hasiko dira gaur

Gaur ekingo diete Olarrain auzoan jaiak egitarau oparoarekin. Hala, gaurkoan, Mus Txapelketa izango dute 22:00etatik aurrera.

## TOLOSA ▶

Beotibar 1 eta 2  
taldeek partidak  
dituzte gaur

Gipuzkoako elkartearen arteko Txapelketaren baitan, gaur kadeteen mailako Beotibar 1 eta Beotibar 2 taldeen arteko zesta punta partida izango da, Beotibar pilotalekuan 18:45ean. Bestalde, nagusien mailako Beotibar 1 taldeak gaur Azpeitian jokatu du 20:30etik aurrera Zumaia 1 taldearen aurka.

## VILLABONA ▶

'Aluaren algara'  
gaur plazan,  
20:00etan

Amasa Villabonako Onddo Gazte Asanbladak, pasa den asteko Gaztetxearen hustutzea dela eta, festa batekin erantzun zien «Udalaren eta Ertzaintzaren meatxuei». «Egun, kale gorrian aurkitzen gara, Udalarekin adostear ginen lokalak berme nahikoa ez dituelako eta protesta ekitaldi batean murgiltzea erabaki genuen», adierazi dute. Hala astelehenerik akanpadan daude kalean, eta gaurko, 20:00etan, *Aluaren algara* antolatuta dute herriko plazan.

## TOLOSA ▶ KULTURA

Aukeran dantza  
taldearen emanaldia  
gaur, leidorren

20:00etan hasiko da ikuskizuna; 'Bideak' izeneko lana aurkeztuko dute, tradizionala eta garaikidea nahastuz

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur, 20:00etatik aurrera dantza emanaldi bereziaz gozatzeko aukera izango da Leidor aretoan. Donostiako Aukeran dantza taldea izango da taula gainean jarri eta dantza tradizionala eta garaikidea nahastuz ikuskizuna eskainiko duena. 10 euroren truke eskuratu ahalgo da bertara joateko sarrera.

Donostiako taldeak bere sorreratik «kultura, musika eta koreografia mestizajea duen mundu batean bizi garela» nabarmendu nahi izan du. Horregatik, erritmo, melodia eta folklore tradizionalako elemen-



Aukeran dantza taldea emanaldi batean. HITZA

## EDU MURUAMENDIARAZ ▶ AUKERAN DANTZA TALDEKO KIDEA

«Oso berezia da niretzat gaurko emanaldia,  
jende ezagun asko izango delako»

Ezaguna da oso Edu Muruamendiara (Bergara, 1964) dantza munduan. Eskualdean, esaterako, Ibarako Alurr-en eta Villabonako Oinkarin eskolak ematen dituelako da ezagun, besteak beste. Berarekin egon gara 10 urte betetzear di-

tuen Aukeran dantza taldeko kide bezala, gaurko emanaldiaz hitz egiteko.

**Nolakoa da gaurko saioa?**

13 kidek osaturiko lana da, eta denera, 12 edo 13 koreografia izango dira. Eszenaratzean bi oinarrizko elementu sartuko

ditugu: sokak eta zintak, eta horiek izango dira ikuskizunari lotura emango diotenak.

**Berezia da gaurkoa.**

Oso, jende ezagun asko izango delako bertan. Gainera oso pozik gaude, 600 sarrera salduta daudelako.

**Hurrengo pausoak?**

Alurren eta Oinkarin jarraitzen dut eskolak ematen. Bestalde, Aukeran taldearekin, Bruselan emanaldia dut hurrengo astean eta ondoren, Beasainen, Seguran... asko ditugu lotuta. ◀

tuak dantza garaikidearekin bateratuz, eta gure erritmoak eta urrutiko musika-erritmo ezagunak nahastuz bilatu du bere estilo propioa.

Gaurko ikuskizunari dago-kionez, *Bideak* izeneko lana taularatuko dute. koreografia desberdinez osaturiko ikuskizun honek «bideen eta bide gurutzeen inguruko hausnarketa egiten du, bai eta belau-naldiz belaualdi egindako ibilbidean gertatutako trukeaz ere», azaltzen dute taldekideek. Iparrak, hegoak, ekialdeak, mendebaldira: bizitza eta heriotza, sorrera eta suntsipena, amodioa eta guda bide gurutze batean. Bidean aurkitu egiten duzu eta aurkitu egiten zaituzte. Ikasi egiten duzu eta zugarik ikasten dute. Gure herria zeharkatzen duten bideak, Santiagoko bideak, bereziki, hainbat kulturekin eta joerekin harremanetan jarri gintuzten, eta Europa osoko musikerekin eta dantzek bat egiteko aukera eman zuten. Horregatik, emanaldi honetan, «beste dantza eta musika tresna batzuk sartzea nahi izan dugu».

Zaharretatik eta berrietatik pixka bat duen dantza saioa ezagutu nahi duenak, gaur Leidorren izango du aukera.



I. ETXEBESTE

Añorgako dantzariak  
**ARKAITZ**

**Urriak 27**  
**Ostirala 22:30ean**  
**Olaederra kiroldegian**  
**- Sarrera doan -**

## iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Ileapaintzailea.** Tolosako ileapaindegi batek esperientzia handiko langilea behar du.  
[625 70 50 59.](tel:625705059)

**SALGAI**

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tebua. Egoera oso onean.  
[14.000 euro. 943 65 41 43.](tel:14000euro)

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Inketa.** «Ehiza garaian gaude. Usoetara eta birigarroetara ehiztari asko joaten dira. Gero oilgorretara. Ehiza honen alde al zaude?». Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman zure iritzia proposatzen dizugun gaiaren inguruan

## KULTURA ▶

# 'Bonberenea Suffle' DVD berria kalean da gaurtik aurrera

Bonbereneatik azken urte hauetan igaro diren taldeen zuzeneko 33 kantu biltzen dira ikus-entzunezko honetan



Bonbereneako ordezkariak, atzo, aurkezpenean. E. EZEIZA

**ESTI EZEIZA**

Azken urteetan sukaldatzen egindako lan handiaren ondoren, atzo aurkeztu zuten emaitza Bonbereneakoek: «Autogestioaren labean egindako suffle berezi eta zapoetsua». *Bonberenea Suffle* 33 zuzeneko kantu biltzen dituen ikus-entzunezko DVD-a da. Gaurtik

aurrera salgai egongo da dendetan, 12 euroren truke.

Lan berri hau, sei mota ezberdinetan banatu, eta gosea sortarazten duen kutxa batean aurkeztu eta kaleratu dute. Bertan biltzen diren irudiei dagokionez, denak Bonberenean bertan grabatu eta nahastu dituzte. Egileen esanetan, «lehen ikus-entzunaldian zapo guz-

tiak igarriko ditugu: kafea eta azukrea bezain mingotza eta gozoa diren eta bertako lehen-gaiekin eginda dauden abesti aldakorak, indartsuak, nahiz lasaiak».

Aurkezpenean, Bonbereneako ordezkariak gain, DVDan parte hartu duten Kuraia taldeko Fernando Kuraia eta Pirritx eta Porrotxeko Aiora Zulaika izan ziren. Lehenengoak, gaur egun Gaztetxeek bizi duten egoeraz hitz egin zuten, eta hauen alde egiteko deialdia luzatu zuten. Izan ere, «suffle hau autogestioaren adibidea da».

Atzoko ekitaldiaz gain, bihar gauzatuko dute aurkezpen nagusia. 11:00etan, Bonberenea txaranga kalez kale ariko da, honez gain, Triangulo plazan postu bat jarriko dute «DVD berriaz gozatu nahi duten guztientzat». Gauean berriz, kontzertuak izango dira. 22:30etik aurrera, Zea Mays, Eraso! eta Jone entzun ahal izango dira.

**BONBERENEA SUFFLE ▶ PARTE HARTU DUTEN TALDEAK**
**EZTIA MAMIAREKIN**

- ▶ Zea mays.
- ▶ R.
- ▶ Humus.
- ▶ Berri Txarrak.
- ▶ Eraso!
- ▶ Kokein.
- ▶ Peiremans+.
- ▶ Kerobia.
- ▶ Sei urte.
- ▶ Bide Ertzean.

**KAFE ETA GLAS**

- ▶ **AZUKREZKOAK**
- ▶ Señor no.

- ▶ Nuevo Catecismo Catolico.

- ▶ Lobo Electrico.
- ▶ Brigada Criminal.
- ▶ Lendakaris Muertos.
- ▶ Captain Nemo.
- ▶ Kuraia.
- ▶ Potemkin.
- ▶ Lif.

**BASOKO FRUITUEKIN**

- ▶ Tzesne Vs Paralux.
- ▶ Xabier Erkizia

**EZTIA MAMIAREKIN**

- ▶ Inoren ero ni.

- ▶ Zein?

- ▶ Nueva Vulcano.
- ▶ Izaera.
- ▶ Bad f-line.

**BERTAKO SAGARREKIN**

- ▶ Zura.
- ▶ Anari.
- ▶ Jone.
- ▶ Petti.
- ▶ Anje Duhalde.

**GINGA**

- ▶ Bonberenea Txaranga.
- ▶ Pirritx eta Porrotx.

## KIROLAK ▶

## Laskorain garaile Zierbenaren aurkakoan

GSI Bilboren aurka lehiatuko dira horitxoak asteburu honetan, Usabal kiroldegian

**ERREDAKZIOA**

Laskorain areto futbol taldeak garaipen garrantzitsua erdietsi zuen iragan asteburu. Muskizeko Zierbena taldearen zelaia bisitatu zuten eta iazko denboraldian jasandako porrota bueltatzeko baliatu zuten, bide batez, euren garaipena Egizabalen mutilek.

Epaileek txistua jo bezain laister ikusi ahal izan zen, bizkaitarren ikastolakoen arteko erronka «benetan zaila» izango zela. Hala, bigarren minutuan 1-0koa lortu zuten areaz kanpoko jaurtiketa bati esker. Horitxoaren erreakzioa segidan etorri zen. Telletxearen zartako ikaragarriak, Gilek sarera-

tutako estrategiako jokaldiak eta Saldiasen ezkerkadak, 1-3koa ezarri zutelarik.

Baina, Egizabalen mutilek sufritzeko asko geratzen zitzaizkien oraindik, norgehiagoka amaitzeko zazpi minutu falta zirenean, jokaldi iskanbilatsua baten ondorioz, laskoraindar bat kanporatu baitzuten epaileek. 2 minututako epean, jokalarik bat gutxiagorekin aritu ziren, hala ere, emaitzari eustea lortu zuten. Etxekoek azken ahalegina egin zuten atezain-jokalariaren taktika erabiliaz, baita aldea murriztea lortu ere, baina 5-6ko azken emaitza da gogoz izerditutako garaipen baten egiaztapen ezin hobe.

TOLOSALDEA GOMIARAKO I. II. INSTITUTUA

**FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)**  
 KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA

**IRAUPENA 680 ordu**  
**ZUZENDUA** Edozein pertsonentzat, gizon nahiz emakume.  
**MODULUAK 530 ordu.**

- 1.- GALDARAGINTZA ETA ERAIKUNTZETAKO PLANOEN INTERPRETAZIOA 60H.
- 2.- EBAKETA PROZEDURAK 80H.
- 3.- ERAIKUNTZA METALIKOETAKO OINARRIZKO KALITATE KONTROLAK 20H.
- 4.- ERAIKUNTZA METALIKOETAKO LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA 20H.
- 5.- ANGULUKO SOLDEAKETA ELECTRODOZ 80H.
- 6.- A TOPE SOLDEAKETA ELECTRODOZ 80H.
- 7.- MIG-MAG SOLDEAKETA HORIZONTAL ERAN 50H.
- 8.- TIG SOLDEAKETA HORIZONTAL ERAN 50H.
- 9.- EGITURA METALIKOEN EGITURAK 80H.
- 10.- SENTSIBILIZAZIO AMBIENTALA 10H.

**LANTEGIETAKO PRAKTIKAK : 150 ORDU**

F.S.E.-LAGUNTZAZ
JUSTIZI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Matrikula irekia eta Ikastaro hasiera, 2006ko azaroak 13an  
 Informazioa eta matrikulatzea 943 65 11 47 telefono zenbakian

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
 19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95  
 tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

# Nolako autoa erosi?

Gazteenek auto txikiak eta deportiboak dituzte gustuko, familiadunek aldiz auto handiagoak; 4X4 ibilgailuek eta furgonetek ere iguera izan dute eta azken teknologiadun autoak dira salduenak



ENERJITZ MAIZ

Kale baterrean begira jartzea nahikoa da konturatzea, pasatzen diren ia auto guztiak berri direla. Azken hiru urtetan auto asko erosi denaren seinale da hau, baina, jakitena eman digutenez, aurtien pixka bat behera jaitsi da salmenta.

Hala eta guztiz ere, ballariko auto salmentek, badiate zer eskainia eta gu, hauekiko baturarekin izan gara. Anonetako Bentalde Industrialdean, Opel Giuntuo salmenta sailako arduraduna den Mikel Zubillagak, urte buketarera arte dituzten aukerak, hauek dirala esan digu: egogor datorren autoa Opel Corsa berria da; lau modelo ezberdin ditu. Esentia, Enjoy, Sport eta Cosmo.

Bakotzari dagokionez, ohehen biak hiru edo bost atekoak izan dituzte. Sport a hiru atekoa eta Cosmo-a bostekoa izan ziteke. Gaur egiten diren auto gehienak bezala, ondo hornitutako autoak dira eta aukera ezberdinak eskaintzen dituzte nahi eta beharren arabera. Urte buketaren aldia, 4X4 ibilgailu berria ere eskuratu izango da, azken urteetan horrelako autoak izan ez badugu ere, eskari handia dagoela ikusita, honen aldeko apustua egin dugua.

Orain arteko salmenten buztan galduta, oso ondo saldu den autoa, familiaritateko egozia den tamaina handikoa izan dela adieraz digu, eta adin eta era ezberdinetako jendeak erosten duela. Baita modelo txikiagoa, hiru eta bost atekoa, ere asko salzten da. Halaber, azkenaldian, furgonetan salmentak ere iguera nabarmena izan du, bez da langile mundurako bakarrak salzten, gaur egun gazte jendearen artean eskasera handia dago, mendrako, eskuzko... Gaineratzen ari gendela gehiena informazio

eske etortzen da eta erosi aurretik leku askotatik igaro ohi da. Auto saltzaileren artean ere nortzuekiko handia dago eta hau dela eta Opel Giuntuo bezeroari gertutasuna ematen dio, autoa erosi aurretik, bertan duguna probatzeko aukera eskainiz.

Besetik, ondorengo urteetara begira, baldintza bereziak eskaintzen dizkie, beharagonekin beren talerretan, anahiz eta gazte gehienek, kasu handirik ez egun. Hauek momentuan ordaindu beharrekota dute buruan. Honez gain, lau urteko garrantia dute bertan erositako auto guztiak. Hendeak gehien eskatzen duen gauzen artean, klimatizagailua dela adieraz digute.

Garutze Autoak-eko saltzaillea den Aitor Lopetegik ere Bentalde Industrialdean du bere saltoa eta baita talerra ere. Hauxe, orain arte, besteak beste. Kia eta Rover markekin egiten bazuten lan, orain, Kia markadun autoak bakarrak dituzte salgai. Ondoren saldu den autoa, monobolumen erako Kia Carnival dela esan digu, eta orain, interesgarri suertatu den modelo berritua dute salgai.

### «Puntuo bezala»

Bere hitzetan, gutxiak, ibilgailua erosteko gaitasun gutxiaren itxura eta zaldak bezalakoak izaten dituzte, gehienak deportiboak izatea eskatzen dute eta zaldiek ere badute eraginak, bestealde, «hogita hamar urteko gorakoek segurtasunari ematen diote lehentasuna eta monobolumenak edota 4X4 ibilgailu txikiak dituzte gustuko». Lopetegiren kasuan, ia bezero guztiak, ideia jakinarekin doaz autoa erostera: egun egun, informazio asko dago eskuragarri; salitoki ezberdinetatik pasatzen da bezeroa leku batetara



Monobolumenak dira familien artean gehien salzten diren ibilgailuak. Kasu hauetan, asko begiratzen dute erostek azken teknologiek hornituta dauden ala ez.

### DAVID CASTILLO » ANOETA IROVISA CITROEN EKO SALTZAILA

## «Puntuo bezala» teknologia eskatzen dute gehienek

Irovisa Citroen-eko David Castillorekin izan gira, auto berrera erostera doan jendearen nortzuekiko noroak ezagutu asmoz.

**Aurten zein auto da gehien saldu dena?**  
Gure aldetik gehienak ongi saldu dira. Batik bat, Xara Picasso monobolumen tanterakoa eta erdi tamainako C4a; txikiagoak diren C2 eta C3a ere ongi saldu dira. Furgonetan aldetik, Berlingo eta Jumpya, azken hau, langile jendeak erosten du gehien.

**Zein begiratzen diote autoa erostekotan?**  
Batik bat segurtasunari ematen diote garrantzia, segurua izan dadila erostera doazuen autoa, baita, gaur egun, autoak duen ekipamenduari ere asko begiratzen diote, azken teknologiek interesatzen zaizkie eta asko.

**Orduan, segurtasunari garrantzia ematen zait?**  
Bai bai, jendea asko interesatzen da esaterako, zenbat airbag eta non dituen, fremuak nolakoak dituen edo haurrentzako nolako segurtasuna duen.

**Asmo jakin batekin etortzen dira?**  
Guregana datorren jende gehiena, aukeran ditugun autoen informazio eske-dator eta aholkatzaerak gustatzen zaie. Baina tartean badira zuzenean, begira jo dituen kotzearen bila datozanak.

**Adinaren arabera salmenta aldatzen da?**  
Bai, onokorreen, gazte jendeak auto txikiak ditu gustuko. Behin familia bada edota izatekotan bada, handiagoak diren autoak erosten dituzte. **Kotxe barruko teknologietan,**

### ZENBAIT DATU »

ibilgailu berria erostera joaterakoan, gaur egun, ondorengo eskaerak izaten dira gehien nabarmen direnak:

**KOLOREA**  
Beltza eta gris iluna. Hauek dira nabarmen nagusitzen diren koloreak auto mota guztietarako.

**ADINAREN ARABERA**  
**Gazteak.** 30 urte artekoen artean kotxe txikiak dira nagusi. Dena den, furgonetek ere gorakada nabarmena izan dute gaitzen artean.  
**30 urtekin gorakoak.** Egoeraren arabera aldatzen da, familia izan edo ez. Orohar, auto handiagoak eskatu ohi dituzte.  
**Helduak.** Familiadunak bost

ateko auto familiara eskatzen du; monobolumena, furgoneta edota 4X4 ibilgailua izan daitezke.

**TEKNOLOGIA**  
**Azken berrikuntzak.** Autoa erostekoan gero eta garrantzi handiagoa ematen digu DVDa, bolantean gailuak eta GPSa bezalako azken teknologia zatiak.

**FURGONETA**  
**Langileak.** Erpresa nahiz autonomotzari asko salzten den ibilgailua da. **Gazteak.** Mendrako, eskuzko, zeteburu pata jateko... gero eta gehiago erosten dute.

Azkenaldian modan dauden furgonetetako bat eta atera berri den autoa.

**GURU GTZE AUTOAK**

Tel.: 943 65 40 25  
943 65 03 52  
Faxa.: 943 65 26 53

Benta Aldea Indust, z/g ANOETA

**Corsa Berria!**

**OPEL Giauto**

Benta aldea industrialdea / z/g ANOETA 20270 • Gipuzkoa  
Tel.: 943 65 00 49

**Citroen C4 Picasso 7 eserlekudun auto berria**

Benta aldea industrialdea • Anoeta • Tel.: 943 65 29 33

AMEZKETA ▶ HIRIGINTZA

# «Saihesbidearekin trafikoa baretuko da»

Atzo inauguratu zuten biribilgune berrian errepidea, herrira ez sartzearekin «lasaitasuna eta segurtasuna» bermatuz



Biribilgunea da saihesbideari hasiera ematen diona. Artzainari omenez eskultura ipini dute bertan. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Atzo eguerdian Amezketa bukatu berri duten obra inauguratu zuten. Han izan ziren Julian Sagastume herriko alkatea, Josu Agirrezabalaga Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendari Nagusia, Jabier Astrain obretako arduraduna, Antonio Aguilar, edota Jose Juan Gonzalez de Txabarri, besteen artean.

Aurreko azaroan hasi zituzten duela 23 urte ia eskatutako obra: Amezketa saihsbidea, hain zuzen. 800 metroko luzera dauka, eta Amezketa errekararen atzealdetik igarotzen da. Errekaren gainean lau zubi ditu: herriaren hasieran, egindako biribilgunean, hirugarrena Abaltzisketako bidegurutzearekin bat egiten duena, eta azkena Aralar paper-fabrikari dagoea. Azken honek

herrira sartzeko aukera ere ematen du. Gogoratu behar da saihsbidea egitearen arrazoi nagusienetako bat «herrian barna fabrikara joateko kamioien joan-etorria ekiditzea» izan zela.

Biribilgunean herriko Jokin Tolosak eta Mirari Arteagak dantzatu zuten *Agurra*, eta ondoren, zinta moztu zuten politikariek. Jarraian, Tomas Ugarte-mendiak egindako lana erakutsi zuten: «Aralar aldera begira, artzaina artaldearekin». Alkateak udaletxean argitu zuen moduan, «Amezketa familia guztiek duten zerbait irudikatu nahi genuen, eta artzaina izan da aukera: etxe guztietan dago artzainen bat, eta haien omenez ipini dugugu».

Bide berritik abiatu ziren politikari guztiak udaletxeraino. Ondoren, obra aurkeztu zuten Josu Agirrezabalagak eta Ja-

bier Astrainek: «harri-lubetak luzatu egin behar izan ditugu, mendiko lurra ez delako kalitatezkoa. Denborarekin edertu egingo da, loreak landatu ditugulako», adierazi zuen Astrainek. Horretarako «2.580.000 euro behar izan dira». Atzo bertan martxan jarri zituzten argiak biribilgunean.

## Alkatearen hitzak

Alkateak eskerrak eman zituen, eta saihsbidearekin lortutakoak gogoratu zituen: «lasaitasuna, segurtasuna eta fisioterapia hobetu dituzte errepide honek». Aldi berean Donostia eraikinak eta Iruña eraikinak enpresen lana eskertu zuen. Horrez gain, Amezketa errepidearekin «etapa berri bat hasten dela» aipatu zuen, «etorkizunean garapen handi bati bidea ireki diezaiokelako».

IBARRA ▶ POLITIKA

# Elkartasun Egunari bultzada eman diote

Merkatari, dendari, tabernari, kirolari, musikari eta errepresaliatuen senideen deia

## MADDI SOROA

Ibarrako zenbait merkataria, dendari, tabernari, kirolari, musikari eta errepresaliatuen hainbat senide elkartu ziren herenegun Kultur Etxean emaniko prentsurrekoan. Helburua, bihar ospatuko den Elkartasun Egunean parte hartzeko deia egitea izan zen.

Herritar batek irakurritako komunikatuak zioen bezala, «preso ditugun ibarrako Eiderrek, Maitek, Ekaitzek, Mindek eta etxetik kanpo diren iheslariak jakin behar dute, gu prest gaudela gure ekarpena egiteko eta lehenbailehen denak gure artean egoteko».

Irakurleak zera gehitu zuen: «garbi utzi nahi dugugu, preso badaude ere, badituztela beraien eskubideak, eta horien jabe izan arte ezinezkoa izango da konponbidearen aldeko pausuk ematea».

Ekaitz Aramendik, Minde-

giak eta Eider Ijurkok «zigorren 3/4ak beteta dutelako jada gure artean egon behar dutela» helarazi zuten eta Maite Aranalderen kasuan, «degearen arabera Euskal Herrian egon beharko lukeela».

Ibarrako presoentzat ezezik, Tolosakoentzat ere izan zuten hitzik, baita egun gaixotasun larriak dituzten zazpi presoentzat ere; denei erreferentzia eginik «etxean nahi ditugula» baieztatu zuen komunikatuaren irakurleak.

Funtsean prentsurrekoarekin, «babesa eta maitasuna adierazi nahi» izan zieten aipatutako presoek. Era berean, «horrelako egunak gehiago antolatu behar ez izatea» gogoratzeaz gain, deia egin zieten ibartarrei eta eskualdeko herritarrei, bihar ospatuko den Elkartasun Egunean parte hartzeko. 19:00etan egingo dute Ibarrako manifestazioa eta ekitaldia.



Herenegun eginiko prentsurrekoa. M. SOROA



## 38. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekintza

kultura

Babesle Ofiziala

kutxa  
zer nahi duzu bihar?

ALEGIA ▶ PILOTA



Intxurre pilota eskolako infantil mailako pilotariak. N. GARZIA

# Infantilen Gipuzkoakoak hastear dira

Elorri frontoian izango dira binakako partidak, bihar 16:30etik aurrera

NAIARA GARZIA

Bihar Gipuzkoako Txapelketa binakako infantilen partidak jokatu dituzte hainbat pilota taldeek Alegiko Elorri pilotalekuan, 16:30etik aurrera.

Gipuzkoan guztira 12 multzo daude, eta Alegian biek hartuko dute parte, G eta H direlakoak, hau da: Intxurre 1 (Alegia), Aurrera-Saiaz 2 (Tolosa-Bidegoian), Aurrera-Saiaz 3, Behar Zana 1 (Villabona) eta Kuku (Anoeta), G multzoan, alde batetik eta Intxurre 2 (Alegia), Aurrera-Saiaz 1, Gazteleku, Behar Zana 2 eta Erniope, H multzoan, bestetik.

Bihar hasiko den txapelketa hau itzuli bateko ligaxka da eta bere osotasunean Alegiko Elorri pilotalekuan jokatu da, eta beti aipatutako bi multzotako konbinazioak izango dira. Azaroaren 25ean amaituko den txapelketa barruan Alegiko pilotari hauek hartuko dute parte: Intxurre 1, alde batetik, 3 pilotariak osatua: Beñat Zabala, Iñaki Artola eta Adur Murua pilotariak. Eta Intxurre 2 multzoa, bestetik, 4 pilotariak osatua: Imanol Irazustabarrena, Iñaki Landa, Beñat Arandia eta Joseba Arrospide.

Intxurre pilota eskola 7 pilotariz osatuta dagoenez, bi mul-

tzotan banatzen dituzte pilotariak. «Bikoteak aldatu egiten ditugu, helburua denek jokatzea baita», dio Jose Luis Zabalak, Alegiko Intxurre pilota eskolako entrenatzaileak.

Pasa den urtekoa izan zen txapelketa honetan Intxurrek parte hartu zuen lehenengo aldia. Orduan 4 pilotari ziren eta aurten kopuruak gora egin du, 7 pilotari baitaude. Jose Luisen ustez «pixkanaka hasi gara, poliki-poliki, pilota herri mailan zuzpertzeko eta umeak futbolekin bakarrik ibili ez daitezzen». Parte-hartzaile guztietatik talderik sendoena Aurrera-Saiazekoa da: hiru talde dituzte. Baina, hala ere, txapelketa guztietan ezustekoak izaten dira. Aldez aurretik irabazlea zein izanen den jakitea ez da erraza. Imanol Irazustabarrena pilotariak 6 urte daramatza mundu honetan eta «ahal den hobekien jokatzea» du helburu. «Txapelketari ez diot inolako beldurrik».

**NORGEHIAGOKAK ▶**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

Pilota eskolak.

Aurrera Saiaz 2 - Aurrera Saiaz 3

Behar-zana 1 - Intxurre 1

Intxurre 2 - Behar Zana 2

Aurrera Saiaz 1 - Erniope alde

GIZARTEA ▶

## Azkeneko ostiraleko elkarretaratzeak

Atxilotuen inkomunikazioa uzteko txostena onartu du Legebiltzarrak

**ERREDAKZIOA**

*Estatus politikoa orain, euskal presoak Euskal Herrira lelopean Etxerategi, ostiraleko bezala, Euskal Herriko herri eta hiriburuetan elkarretaratze ixilak egiteko deialdia egin du. Alde batetik «egun euskal preso politikoei nahiz senide eta lagunak sakabanaketa politikarekin egunez egun jasaten duten eskubide urraketekin amaitzeko bidea da», hau da, sakabanaketen ondorioen salaketa: mediku laguntzarik eza, senide eta lagunak istripuak, jipoiak, euskaraz komunikatzeko eta ikasteko debekua, gastu ekonomikoak...*

Bestetik, elkarretaratzeekin Euskal Herriko gatazka irtenbide politikoa presoek ekarpenak egiteko baldintzak exijitzen dituzte, «eragile ezberdinen artean burutu beharreko elkarriketa eta akordioetan». Zentzu honetan, «euskal preso politikoei Euskal Herriari batu eta beraien ekarpenak elkarriketa horietan bere tokia, beste eragile guztiak bezalaxe,

beraien aukera izateko baldintzak exijitzen ditugu». Etxerategi aldarrikatzen dituen eskubide nagusiak «tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea, osasun, komunikazio, hizkuntza, hezkuntza, amatasun eta aitatasun eskubideak eta Euskal Herriari bizitzeko ere» dira. Euskal Herriko herrietan guztietan bezala, Tolosaldean eta Leitzaldean ere elkarretaratzeak deitu ditu Etxerategi. 19:30ean: Alegia, Amezketa, Anoeta, Ibarra eta Tolosa. 20:00etan: Aduna, Asteasu, Ikaztegieta, Leitza, Lizartza, Villabona eta Zizurkilan.

**Inkomunikazioa**

Eusko Legebiltzarrak Espainiako Prozedura Kriminaleko Legea aldatzea proposatzeko txostena onartu du, atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utzi, eta polizia-etxetan atxilotuei itaunketak grabatzea exijituz. Erabakia Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran bozkatu ostean, Espainiako Gorteetara bidaliko dute.



laz Leitza egindako presoan elkarretaratzea. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

## 'Azul oscuro casi negro' filma ikusgai 21:30ean

Kritikaren ustetan denboraldi honetako bigarren filma «gogo egoera bat» da


N. GARZIA

Gaur gauean filma «on» bat ikusteko aukera paregabea izanen da Leitzako zineman 21:30ean. Daniel Sanchez Arevalo zuzendariaren lehenengo luzemetraia kritikaren harrera ona lortu eta gero iritsi da Leitzara.

Bere aitak garuneko infartu bat jasan ondoren, Jorgek bere aitaren lana hartu du. Lanarekin batera, berea ez den patu bat egokitu zaiola sentitzen du. Azken urteetan bere aita zaintzeaz gain, bere lana ere aurrera ateratu du, eta hau gutxi balitz, unibertsitatean ere ikasketak egin ditu. Orain bere helburu nagusia beste lan bat topatzea da.

Bere anaia Antonioren birtartez Paula izeneko neska bat ezagutu du eta beraien artean harreman arraro bat sortuko da. Neska honen laguntzarekin Jorgek gauza guztiaren arduradun sentitzea irizki dio eta behingoz bere benetako desioei aurre egingo die, besteek berarengandik espero duten hori alde batera utziz. Orduan dena ezberdina izanen da, edo ez...

Gaur zinemara hurbildu ezin duenak, igande arratsaldean beste aukera bat izanen du, 19:00etan.



**Salgai (Tolosa)** Arostegieta kalea, Eraberriua estreinatzeko. Rondilla kalerako bistekin.

**Salgai (Tolosa)** Larramendi kalea, 100m2. Igogailuarekin. Eraberriuzeko.

**Salgai (Tolosa)** La Estrella. 93m2. Aparta. Garajea aukeran.

**Salgai (Tolosa)** Korreo kalean 75m2. Eraberriua.

**Salgai (Tolosa)** K/Nagusian 50m2-ko atikoa. Eraberriua.

**Salgai (Tolosa)** Letxuga kalean 50m2-ko atikoa. Eraberriua. Estreinatzeko.

**Salgai (Ataun)** San Gregorio. 60m2. Eraberriua estreinatzeko. 167.682 euro.

**Salgai (Tolosa)** Gernikako arbola. Lokal komertziala 25m2.

**Salgai (Tolosa)** Korreo kalean lokal komertziala 103m2.

**Salgai (Tolosa)** Sanmaniego kalean lokal komertziala 30m2.

943 69 71 96 • 675 705 268

Korreo Kalea 50

**GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA**


**Ian eskaintza**

**Baloratuko da:**

- Komunikazioa/Publicitatea/Marketing arloekin harrerama duten ikasketak
- Arlo horietan lan eskaintza izatea
- Euskaraz eta gaztelaz lan egiteko gaitasuna izatea
- Gidabaimena eta autoa izatea

Curriculama jakitzeko azken eguna: **azaroak 8, asteazkena**

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa. Anoeta parkeak 5. Kof. Enea 20014 Donostia  
ggp@beleuskal.net



**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 27a, ostirala ▶ IV. urtea**

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

20

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Odol-emateak izango dira. Sendagile ebxean izango dira, 19:00etatik 21:00etara bitarte.

**Anoeta.** Gaztetxean, arratsaldean asanblada eta gaztain jatea. Gauean, 23:00etan, kontzertua Jikuri eta Klakson taldeen eskutik.

**Ibarra.** Bihar Ibarra izango den Elkartasun Egunean egingo den bazkarirako txartelak salgai ohiko tabernetan.

**Tolosa.** Gaur amaituko da Boluntariotzako Oinarrizko Ikastaroan izena emateko epea.

**Tolosa.** Aukeran dantza taldeak, *Bidean* saioa aurkeztuko du Leidor antzokian, 22:30ean.

**Tolosa.** Def Con Dos taldea entzungai izango da gaur



## Zubiria, ezker abertzaleko zozketan irabazle

TOLOSA ▶ Mikel Zubiria izan da Tolosako ezker abertzaleak antolatutako zozketaren irabazlea. Hala, nekazal turismo etxe batean asteburua igarotzeko aukera eskuratu du tolosarrak. HITZA

Bonberenean. Kontzertua 22:30ean hasiko da.

**Tolosa.** Merkataritza Federakuntzak antolatuta Eskaparaismo ikastaroa izango da Kultur Etxean, 14:15etik aurrera.

**Villabona.** Santio jaietan Arkaitz dantza taldearen emanaldiak bertan behera geratu behar izan zuen euria zela eta. Hori dela eta, hilaren 27an Olaederra polikiroldegian emango du emanaldia.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Areso.** Goizueta, F. Loidi ebea. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, M.L. Amaro zuzoa, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Agurtzane Otamendi. Zorionak familiaren partetik biontzako.



### URTE ASKOAN

Hegoi (Areso). Zorionak, ttikito!  
Ondo pasa zure bigarren urtebetetze egunean. Muxu handi bat Berrobiko atton-amonen partez.



### URTE ASKOAN

Iker Labaka Sorarrain. 2 urte.  
Zorionak sinpatiko. Alegi eta Alkizako familiaren partetik. Berreziki Maitane eta Eneritzen partetik.



Koldo Mitxelena Kulturunea  
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

## ERAKUSKETAK

Mugako nire lagunei.  
**Ipar Euskal Herria karlistadetan 1833-1876**

### Ganbaran

Irailaren 13tik azaroaren 4ra

Gure artea  
lehiaketako hautatuak.

### Erakustaretoan

Urriaren 19tik urtarrilaren 5era



ORDUTEGIA  
astartetik larunbatera:  
10:30-14:00 / 16:00-20:30  
astelehen, igande eta jaiegunetan itxia

**SUSTRAIEZ BLAI 2006**

**BIG YOUTH JAMAICA**

**ASIAN DUB FOUNDATION SOUND SYSTEM (DJ. SET) LONDRES**

**ZORABIOK | JAVI P3Z DJ. EUSKAL HERRIA**

Ordizian urriaren 28an